



Greba orokorra Hego Euskal Herrian

Lan iharduera erabat etenda geratu zen atzo Euskal Autonomi Elkartean greba orokorraren ondorioz. Nafarroan ere erantzun garrantzitsua lortu zuen deialdiak. Grebara deitu duten ELA, LAB, CCOO sindikatuek eta deialdiarekin bat egin zuen UGTk lanuzteak Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban lortu zuen arrakasta nabarmendu zuten. Metalgintza, kimika, elikagaia, papergintza, eraikuntza, merkataritza

zein arte grafikoetan geldialdia erabatekoa izan zen. Garrioetan ere grebaldiaren jarraipena handia izan zen eta gutxienezko zerbitzuek ez zuten kasu guztietan normaltasunez funtzionatu. Bai, ordea, osasun arloko zentruetan. Sindikatuek oso balorazio positiboa egin zuten atzo grebaren emaitza ikusi eta gero eta istilurik gertatu bazen ere, azpimarra daiteke gatazkak ez zirela oso larriak izan.



Bilboko manifestazioan milaka langileren aldarrikapenak entzun ahal izan ziren

XOUSE SIMAL

Grebak erabateko erantzuna lortu zuen

EAEko eskualde eta sektore gehienetan deialdiaren jarraipena oso zabala izan zen

DONOSTIA

Greba deialdiaren erantzuna erabatekoa izan zen atzo Euskal Autonomi Elkartean eta nahiko zabala Nafarroan. Lanuzte egunaren ezaugarria lasaitasuna izan zen arren, istilurik ere izan zen

Bilbo eta Gasteizen. Horren ondorioz, piketeak osatzen zituzten langile bat zauritu eta hiru atxilotu egin zituzten.

Langabeentzako dirulaguntzak murriztu dituen Gobernuaren dekretua, Europarekiko Bataeratsun Plana, Greba Legea eta

Industriaren deuseztapena izan dira ELA, CCOO eta LAB sindikatuek deitu eta UGTk lagundutako grebaldiaren arrazoiak. Azken sindikatu honek ez zuen parte hartu gainontzekoen mobilizazioetan. Bai ordea ESK-CUIS, CGT, CNT, STEE-EI-LAS, USO eta USTK.

Sindikatuaren arabera, EAEko eskualde eta sektore gehienetan jarraipena ia erabatekoa izan zen eta gutxienezko zerbitzuak osasun zentruetan eta babes zibilean bete baziren ere, garraioetan ez zen horrela gertatu, autobus zein trenbide garraioak batzutan oztopatu bait zituzten piketeek eta gutxienezko zerbitzuak ezin izan ziren normaltasunez bete.

Grebara deitu zuten sindikatuek zeharo balorazio positiboa egin zuten bitartean, euskal patronalaren elkarte ezberdinek (Confebask, Adeg, CIM, SEA...) gezuratu egin zuten deialdiaren oihartzuna hain zabala izan zenik eta «piketeen


boikot eta bortizkeriari» egotzi zieten lan ihardueraren geldialdia.

Eusko Jaurlaritzako Lan Saila, bere aldetik, grebaren erantzunak % 70 inola ere ez zuela gainditu ziur azaldu zen, nahiz eta «piketeek etengabe mehatxuan ihar-

dun». Piketeen jokaera gaitzetsi zuen Lan Silak eta grebaren benetako jarraipena zein izan den esatea eragozten duela azpimarratu zuen. Gutxienezko zerbitzuak bete ez izanak, batez ere garraioetan, Gasteizko Gobernuaren arbuioa merezi izan zuen.



Donostiako kontzentrazioarik jendetsuena Kontxakoa izan zitekeen.



Bulego hau itxi erazi zuen piketeak.